

Euskarazko izen arrunten proposamena
Jacanidae familiarentzat

6 generotako 8 espezierentzat proposamenak



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA**
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur

2024ko maiatzean
Euskal Batzorde Ornitologikoa

Izen arrunten proposamena Jacanidae familiarentzat

6 genero eta 8 espezie

Europan inoiz ikusi diren hegazti-espezieen zerrendan badira beste kontinente batzuetatik iritsitako hainbat hegazti, besteak beste Jacanidae familiako kideak. Jakanidoak 6 generotako 8 espezie dira, euskarazko izen arruntik gabeak Euskaltermen eta euskarazko hiztegi nagusietan.

Hona hemen txori hauentzat euskarazko izen arrunten proposamenak.

Jacanidae familiaren berezitasunak:

- **Familia txikia** da; genero askotxo ditu (6), baina espezie gutxi (8).
- Nazioartean orokorra da familia honetako kideentzat “**jakana**” generikoa erabiltzea
- Munduan barrena nahiko ondo zabaldua daude, baina **elkarrengandik nahiko banatuta** (3 espezie Afrikan, 1 Ozeanian, 2 Asian eta 2 Ameriketan).
- Hori dela eta, eta 8 espezieak itxuraz nahiko ezberdinak izan arren, izen zientifikoek eta beste hizkuntza batzuetako **izen arruntek espezie bakoitzaren banaketa azpimarratzen** dituzte askotan. Hau da, familia honetan, **izen deskriptiboekin batera**, banaketa geografikoarekin lotutako izenak ere oso ohikoak dira, besteak beste, African jacana (EN), Jacana malgache eta Jacana centroamericana (ES), Jacana du Mexique (FR), *Microparra capensis* eta *Metopidius indicus* (latinezko izenen artean) eta abar.

Microparra capensis

Jacana chica (ES), Lesser jacana (EN), Jacana nain (FR), Jacana menuda (CA)

- Espezie hau da jakana guztien artean txikiena, nabarmen.
- Izen zientifikoak ere txikitasun hori azpimarratzen du.
- Inguruko hizkuntza guztiak bat datoz.

Proposamena: jakana txiki

Actophilornis africana

Jacana africana, African jacana, Jacana à poitrine dorée, Jacana africana

- Afrika osoan banatuta dagoen espezie bakarra da.
- Inguruko hizkuntza gehienak bat datoz.

Proposamena: jakana afrikar

Actophilornis albinucha

Jacana malgache, Madagascar jacana, Jacana malgache, Jacana de Madagascar

- Afrikako bere senidearen oso antzekoa.
- Madagaskar iparraldean bakarrik bizi da.
- Inguruko hizkuntza guztiak bat datoz izena ezartzeko orduan.

Proposamena: jakana malgaxe

Irediparra gallinacea

Jacana crestada, Comb-crested jacana, Jacana à crête, Jacana australiana

- Australian bizi den jakana bakarra da.
- Gandor nabarmena dauka, jakanen artean bakarra.
- Hizkuntza gehienek izen deskriptibo nabarmen hori azpimarratu dute.

Proposamena: jakana gandordun

Hydrophasianus chirurgus

Jacana colilarga, Pheasant-tailed jacana, Jacana à longue queue, Jacana cua de faisà

- Asia hegoaldean bizi da.
- Izen zientifikoak iradokitzen duen bezala, faisaien antza ematen dion isatsa dauka.
- Inguruko hizkuntza gehienek horixe azpimarratzen dute euren izen arruntetan.

Proposamena: jakana faisai-buztan (edo jakana buztanluze)

Metopidius indicus

Jacana bronceada, Bronze-winged jacana, Jacana bronzé, Jacana d'ales bronzades

- Espezie hau ere Asia hegoaldean bizi da.
- Gorputzez arrea da, Jakana gehienak bezalatsu. Lepo beltza du eta bekain zuri oso bereizgarria.
- Izen arruntari dagokionez, inguruko hizkuntza gehienek bere kolore arrea (brontzekara) azpimarratzen dute. Beharbada ingelesaren eraginez gertatu da hau, kolore arre hori ez baita espezie honen bereizgarria (jakana gehien-gehientsuenak baitira horrelakoxeak).
- Iruditzen zaigu espezie honen ezaugarri bereizgarriena bere bekain zuria dela.

Proposamena: jakana bekainzuri

Jacana jacana

Jacana suramericana, Wattled jacana, Jacana noir, Jacana sud-americana

- Bere senide *Jacana jacana*-ren oso antzekoa da itxuraz.
- Ez da monotipikoa, kolore aldetik oso aldakorra da lurralde batetik bestera. Badira erabat beltzak diren azpiespezieak eta arre-gorrizkak diren beste zenbait.
- Hori dela eta, ez da erraza bere ezaugarri fisikoetan oinarritzea espeziea izendatzeko orduan, nahiz eta bere musu gorria izan daitekeen ezaugarri bereizgarriena.
- Inguruko hizkuntzetan ez dago batasunik izena ezartzeko orduan.

Proposamena: jakana hegoamerikar (edo jakana musugorri)

Jacana spinosa

Jacana centroamericana, Northern jacana, Jacana du Mexique, Jacana del Carib

- Bere senide Jacana jacanaren oso antzekoa da itxuraz.
- Kolore aldetik aldakorra da lurralde batetik bestera. Hori dela eta, ez da erraza bere ezaugarri fisikoetan oinarritzea espeziea izendatzeko orduan.
- Aldiz, oso banaketa zehatzeko espeziea da, Karibe inguruko herrialdeetan bizi da.

Proposamena: jakana karibear

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa).

Euskal Batzorde Ornitologikoa

Hydrophasianus 1 species



Pheasant-tailed Jacana
Hydrophasianus chirurgus

Jacana 2 species



Northern Jacana *Jacana spinosa*



Wattled Jacana *Jacana jacana*

Microparra 1 species



Lesser Jacana *Microparra capensis*

Irediparra 1 species



Comb-crested Jacana *Irediparra gallinacea*

Metopidius 1 species



Bronze-winged Jacana *Metopidius indicus*

Actophilornis 2 species



African Jacana *Actophilornis africanus*



Madagascar Jacana *Actophilornis albinucha*